

## SICUE IKASLEEN BETEBEHARRAK

1.- Ikaslearen erantzukizuna da harrera unibertsitatean sartzeko kudeaketak egitea. Ikasleak adi egon beharko du unibertsitate bakoitzak onarpen eskabideak aurkezteko (**kasu batzuetan on line**) ezartzen dituen epeei; izan ere, unibertsitate askok ez dute onartzen epez kanpo bidalitako eskaririk. Era berean, ikaslearen erantzukizuna da unibertsitatean dagoen bitartean ostatua kudeatzea. Mugikortasun plaza lortu izanak EZ du nahitaez esan nahi ikaslea harrera unibertsitatean onartu dutenik.

Ikasleak ez du tasarik ordaindu beharko harrerako unibertsitatean, jatorrizko unibertsitatean ordaintzen baitu. Hala eta guztiz, harrerako unibertsitateak diru kopuru txikiren bat eskatu ahal izango dio ikasleari aseguruaren edo ikasleen sindikatueterako afiliazioaren gastuei aurre egiteko, edota material ezberdinen erabileraren gastueterako (fotokopiagailuak, laborategiko produktuak eta abar). Bertako ikasleei eskatzen zaien kopuru berbera izango da.

2.- **AURRETIKO KONPROMISOA - AKORDIO AKADEMIKOA:** Harrera unibertsitatean hasi aurretik, ikasketa kontratua izenpetu beharko du ikasleak bere ikastegiko koordinatzailearekin eta bertan adieraziko da harrera unibertsitatean zer irakasgai eta kreditu egingo dituen eta UPV/EHUko ikasketa planeko zer irakasgai eta kreditu ordezkaturiko dituzten. Konpromisoa baliagarria izateko, ikaslearen sinadura, koordinatzailearena eta baliozkotzeen arloko agintari eskudunarena beharko dira.

**GARRANTZITSUA:** jatorrizko unibertsitatean matrikula egin aurretik **nahitaezkoa da** jatorrizko unibertsitateak eta ikasleak akordio akademikoa sinatua izatea. Matrikula jatorrizko unibertsitatean egingo da, automatrikula erabiliz, horretarako argitaratuko diren datetan.

Truke ikaslea izanez gero, nahitaezkoa da akordio akademikoa ikaslearen **GAUREko profilaren bidez** sinatzea, nahiz eta aurretik paperean sinatuta eduki. Izan ere, konpromiso hori ikaslearen matrikulari eta espedienteari estekatuta geratuko da.

**OHARRA:** akordio akademikoa GAUREn bidez egiten ez badu ikaslea, beti agertuko da UPV/EHUn matrikulatutako ikasle gisa, ez truke ikasle gisa, ezin izango zaizkio ikasitako irakasgaiak baliozkotu, eta ez da inon islatuta egongo mugikortasun programa batean parte hartu duenik.

### **EGONALDIA: C inprimakia: Akordio Akademikoa.**

Trukearen iraunaldia aldatuz gero (emandako SICUE mugikortasunaren hilabeteak), ikasleak aldaketaren berri eman behar du (SICUE egonaldia luzatu edo laburtzea), beteta **C inprimakiaren eranskinean** horretarako dauden eremuak (ikaslearen sinadura, jatorrizko eta harrerako unibertsitateko koordinatzailearen sinadura eta zigilua, egonaldiaren hasiera eta amaiera datak, eta onarpenaren data). Eranskin hori nahitaez bete behar dute egonaldiaren iraupena aldatu nahi duten ikasleek.

**EPEAK:** hauek izango dira harrerako unibertsitateak akordio akademikoa sinatzeko epeak (harrera unibertsitateko SICUE koordinatzailearen eta zuzendari edo dekanoren sinadura eta zigilua jarri behar da, dokumentuan bertan adierazten denez):

- 2022ko uztailaren 1 arte (egun hori barne), lehen lauhilekorako eta urteko mugikortasunetarako akordio akademikoen kasuan.
- 2022ko urriaren 28 arte (egun hori barne), bigarren lauhilekorako mugikortasunetarako akordio akademikoen kasuan.

**AKORDIO AKADEMIKOA ALDATZEA:** Hiru alderdiek (hau da, ikasleak, jatorrizko ikastegiak eta harrera ikastegiak) onartutako akordio akademikoa kontratu ofiziala eta loteslea izango da sinatzaileentzat. Aldaketarik egin nahi bazaio, **hilabeteko epearen barruan** egin beharko da, ikaslea harrerako ikastegira heltzen denetik hasita. Epe hori amaituta, ezin izango da aldatu. Ikasleak ezer aldatu nahi badu akordioan, UPV/EHUko SICUE koordinatzaileari esan beharko dio, baimena eman diezaion. (Garrantzi handikoa da aldaketa egiteko epea kontuan hartzea)

**OHARRA:** gestioa errazteko, akordio akademikoan egindako edozein aldaketan argi ageri beharko da zein irakasgai gehitu den, C inprimakian zein kendu eta aldatu gabe geratu direnak. Inprimakia Nazioarteko Harremanen Bulegoko web gunean dago eskuragarri, Sicue Programa 2022/2023.

3.- Ikaslea ezarritako egunean hasiko da harrera ikastegian. Hala ez bada, mugikortasunari uko egin diola joko da. Egoera horren berri berehala eman beharko dio Nazioarteko Harremanetako Bulegoari, ezarritako bideen bitartez; izan ere, jakinarazten ez badu, mugikortasun programetako hurrengo deialdietako hautaketa prozesutik kanpo geldituko da.

4.- Ikasleak harrera unibertsitatean errendimendu ona duela egiaztatu beharko du. **Hots, egonaldian konpromiso akademikoan jasotako kredituen erdia gainditu beharko du gutxienez.**

5.- Ikasleak egiaztatu beharko du, horretarako egongo diren epeen barruan, egonaldia egin egin duela eta horren iraupena, beteta helduera ziurtagiria (**F inprimakia**) eta **egonaldi amaieraren ziurtagiria** (harrerako unibertsitateak sinatua eta zigilua jarrita). Ez badu egiaztatzen egonaldia egin duela, edota iraupena onartutako egonaldiarena baino txikiagoa bada, ez zaizkio aitortuko beste unibertsitatean egindako ikasketak.

6.- Ikasleak, gainera, bete eta aurkeztu egin beharko ditu bere mugikortasuna dela-eta UPV/EHUk eskatu ahal dizkion **dokumentu** guztiak. Trukearen iraunaldia aldatzen badu (onartutako SICUE mugikortasunaren hilabeteak), **SICUE egonaldia luzatzeko edo laburtzeko eskaria** aurkeztu beharko du. Eskaria aurkezteko epea maiatzaren 13 ean amaituko da (egun hori barne)

7.- Ikasleak irakaskuntzako jarduera guztietan parte hartuko du eta egonaldiko programazio akademikoko proba eta azterketa guztietara aurkeztuko da.

**8.- Betebeharrak ez betetzea:** Betebeharrak justifikaziorik gabe urratzen badira, beka (hala dagokionean), ikasketa kontratua eta finantza kontratua bertan behera gera daitezke eta, ondorioz, jasotako diru laguntza itzuli beharra egon daiteke, eta Nazioarteko Harremanetako Bulegoak etorkizunean sustatzen dituen mugikortasun programetako hautaketa prozesuetan parte hartzeko eskubidea galdu ahalko da.

9.- Aurreko 8. atalean dirua itzultzeko ezarritako beharra osorik edo zatika bete ezean eta egoera honek dirauen bitartean, debekatuta egongo da matrikula, titulu emate, kalifikazio berririk egitea, bai eta espediente akademikoari buruzko informazio oharrak lortzea ere. Era berean, ezin izango dituzte UPV/EHUren gainerako zerbitzuak erabili.

**10.- Zigorrak:** Ikasleak epe bat dauka esleitu zaion plaza GAUREn bidez onartzeko edo plazari uko egiteko. Epea betetzen ez badu, zigorra ezarriko zaio, eta hurrengo ikasturtean ezin izango du parte hartu Nazioarteko Harremanetako Bulegoak kudeatzen dituen mugikortasun programetan. Era berean, ikasle batek lehendabizi plaza onartu baina gero uko egiten badio GAUR erabili BARIK, NHBk programatik at utziko du eta zigor bera ezarriko zaio, alegia, hurrengo ikasturtean ezin izango du truke programetan parte hartu. **Era berean, ikaslea zigortua izango da, baldine ta GAUR-en bidez uko egiten badio plazari dirulaguntzarik ez duela oinarri hartuta (Seneca).**

**11.- GRADU AMAIERAKO LANA.** Emandako SICUE plaza onartu aurretik, ikasleak galdetu beharko du, bai harrerako unibertsitatean bai ikasketak egiten ari den UPV/EHUko ikastegian, egin ahal duen GRALa mugikortasuna egiten ari den bitartean. Mugikortasunari uko egingo dioten ikasleek kontsulta hori egin ez zutelako, **zigortuak** izango dira eta ezingo dute egin mugikortasunik hurrengo ikasturtean. GRALaren gaia eta tutorea esleitu ahal izateko eta lanaren defentsa egin ahal izateko, bete egin beharko dira harrerako unibertsitateak ezarritako baldintzak. Hortaz, mugikortasunean parte hartu eta gradu amaierako lana akordio akademikoan sartu nahi duten ikasleek harremanetan jarri behar dira harrerako unibertsitateko koordinatzailearekin, jakiteko baldintzak zeintzuk diren.

**12.- KANPOKO PRAKTIKAK (CURRICULUMekoak):** Ikaslea harremanetan jarri beharko da aurretiaz harrerako unibertsitateko koordinatzailearekin, jakiteko kanpoko praktikak egiterik izango duen eta, hala bada, akordio akademikoan sartzeko praktikok.

**13.- Garrantzitsua: SICUERI UKO EGITEKO EPEA ETA PENALIZAZIOA:** GAUREn **uztailaren 15etik aurrera** uko egiten duten ikasleak zigortuko dira. Hori dela eta, komeni da ikasleek data horren aurretik hartzea behin betiko erabakia, zigortua izan ez dadin. Bestalde, gogoan izan behar da egun horietan ikasleek matrikula egin behar dutela beren ikastegietan, beraz, kontuan hartu beharko dute aipatutako erabakia.

**14.- OHARRA: UKO EGITEKO INPRIMAKIA:** **Uztailaren 15etik aurrera** eginez gero uko, GAUR-eko profilaren bidez egin behar da uko, baina, horrez gain, inprimakia bidali behar da **harrerako unibertsitatera** plazari uko egin zaiola jakinarazteko. Inprimakia ez da NHBra bidali behar.